

## GABONEN OIHARTZUNA

Urteroko zikloan Gabonetako etenaldi hau, laburra bada ere, esanguratsua da oso eta kontzientzian marka sakona uzten duena. Gure herriak mendeetan barrena bildu eta bereganatu ditu hainbat tradizio, ohitura, gabon-kanta, kopla etab. Hauetan jentil aroko bristada bakanak antzematen dira. Kristau aroko marka dute ia guztiek. *Olentzero* bera, jentil arokoa izanik, kristau aroan txertatzen da eta hara egokitzen.

### **Kixmi eta Olentzero**

J.M. Barandiaranek kristautasunaren etorrera azaltzen du eta antzinako siniste eta mito zaharren galtzea Aralar mendian kokatzen den legenda baten bidez:

“(...) Ataugo ipuin zaharrak dioenez, jentilak Argaintxabaletako muinoan, Aralar mendian, jostatzen ari ziren, sortaldetik hodei argi bat zetorkiela ikusi zutenean. Ikusten zutenarekin beldurtuta, agure jakintsu bati hots egin eta toki hartara eraman zuten hodei miresgarri hura ikusi eta haren esanahia azaldu ziezaien. Eta agureak esan zien: ‘Kixmi jaio da eta gure endarenak egin du: aldameneko amildegitik jaurti nazazue’. *Kixmi*, agurearen hizkeran, tximinoa zen, jentilen arteko Kristoren gaitzizena. Orduan, hodeiak atzetik jarraitzen ziela, sartalderantz lasterka abiatu ziren jentilak eta Arrastarango zelaitxora iritsi zirenean, bat-batean, harri handi baten azpian hondatu ziren; harrezkero, harri honi *Jentil-harri* deritzo. (...) Horra nola amaitu zen jentil-aroa”.

Legenda honek aldaera asko ditu. Hona beste aldaera bat, Ataungo Leizadi mendi-magalean gertaturikoa:

“Dantzan zebiltzan jentilek izar argitsu bat gerturaten ikusi zuten zeruan. Izugarri ikaratuta jentil zaharrarengana jo zuten, azalpen eske. Honek: “Anai-arrebak, Kixmi heldu da, eta berarekin jentil aroaren azken arnasa. Bota nazazue leize-zulo horretara eta egizue berdin zuek ere. Azkenak itxi dezala harpea haitz batekin eta joan dadila menditik behera Kixmiren jaiotzaren berri ematera”. Hala egin omen zuten denek eta hartatik deitzen diote Ataungo Balankalekuko trikuharriari jentil hilobia eta jentil harria”.

Kristautasunaren garaipena eta sinesteen ordezkatzea horrela kontatua da gaur egun ere. Olentzero omen da beste jentil guztiak lurperatu eta Kristoren jaiotzaren berri emateko agindua bete zuen azken jentila. Beraz, aurreko legenda hauetan bezala, Kixmi hodei argitsu baten forman edo berariatzko izar baten forman agertzen da. Halaxe gertatzen da, gutxi gorabehera, beste herri askotan ahoz aho zabaldu diren aldaeretan ere.

### **Gabonetako zuhaitza**

Hemen ere historia eta legenda nahasten zaizkigu, jentil arokoa eta kristau arokoa. Esan dezagun lehenik, tradizio hau, Europa iparraldean eta erdialdean izan zela iraganean errotuen eta handik zabaldu zela gainerako herrietara. Jatorria iragan urrunean galtzen dela diote, baina historian dokumentaturik eta gaur egun ezagutzen eta irudikatzen dugun eran azken mendeetakoa izan behar duela.

Zelten kulturaren zuhaitza gauza sakratutzat zen. Badakigu Europa erdialdeko druiden artean, lekuan-lekuan, zenbait zuhaitz apaintzen eta gurtzen zituztela, haien sinestean izadiko zenbait gauza eta indar sakratu bihurtzean oinarritzen baitziren.

Europa erdialdea eta iparraldea ebanjelizatu eta kristautu zirenean, herri horietako lehenengo kristauek zuhaitza hartu zuten Kristoren jaiotza ospatzeko sinbolotzat, baina lehenago zuen esanahi paganoa aldatuz.

Zortzigarren mendean san Bonifazio gotzaina ageri zaigu Alemanian ebanjelioa aldarrikatzen. Hango tradizio batek, zati bat historia eta beste zati bat legenda denak, dio Gabonetako zuhaitzak VIII. mendean duela hasiera. San Bonifazio (675-754) Ingalaterran jaio eta hazia zen. Bera, izatez edo boka-zioz, monjea zen, aitzindari, maisu eta pedagogogo bikaina, ikasle eta jarraitzaile ugari bere inguruan zituen. Erromara joan zen eta Gregorio II.a Aita Santuak mandatari apostoliko izendatzen du germaniarrei ebanjelioa aldarrikatzeko. Hessen hasi zuen bere lana, eta lehen monasterioa eraiki zuen Amöneburg-en. 722. urtean gotzain izendatu zuen Gregorio II.a Aita Santuak gotzain-aulki finkorik gabe eta Bonifazio zuzenki Erromako Gotzainaren mende geratu zen, hari fideltasun zina eginik.

San Bonifazio apostolu handi izatera iritsi zen eta, ustez, arrakasta harrigarria izan zuen germaniarren ebanjelizatze eta kristautzean, baina Erromatik itzuli zenean, nahigabe handiz ikusi zuen germaniarrak beren antzinako idolatriara itzuli zirela eta neguko solstizioa ospatzeko prestatzen ari zirela, gizon gazte bat Odíngo haritzean sakrifikatuz. Gar santuaz suturik eta sumindurik, Moisesek urrezko zekorraren aurrean egin zuen antzera, aizkora hartu eta sakratutzat zuten haritza bota zuen hondo-hondotik. Gero historiak dio, haritz haren zuraz Fritzlar-eko san Pedro eliza eraikiarazi zuela. Dena dela, egin-tza honetan ere bere bidea egin du legendak eta hau dio: lehenengo aizkora kolpean, haize-bolada indartsuak bat-batean eraitsi zuen zuhaitza. Herriak, harri eta zur eginik, Jainkoaren eskua ikusi zuen beldur-ikaraz gertakari honetan eta apalki galdetu zion Bonifaziori nola ospatu behar zituen Gabonak.

Gotzainak –dio legendak– izei txiki bati erreparatu omen zion, haritz eroriaren adar hautsi eta hondakin artean mirariz zutik eta kaltetu gabe iraun zuenari. Jainkoaren maitasun ezin iraungizkoaren sinbolotzat hartuz apaingarriz jantzi omen zuen. Lehenik sagarrak jarri omen zizkion han-hemenka adarretan, tentaldiak esan nahi dituztenak, eta gero, kandelak, mundua argitzera datorren Kristoren argia esan nahi dutenak.

Zenbait kulturatan zuhaitzak lurraren eta zeruaren lotura adierazten du. Lurrean botatzen ditu sustraiak eta gorantz edo zerurantz altxatzen da; horregatik erlijio batzuetan, batez ere ekialdekoetan, zuhaitza sakratuarekin aurkitzearen seinalea da, gizakia jainkozko izakiarekin biltzen den gunea. Beste atributu batzuk ere ezarri izan zaizkio zuhaitzari, esaterako, emankortasuna, hazkundera, jakinduria eta bizitza urtetsua.

Kristau zentzuari dagokionez, Gabonetako zuhaitzak Paradisuko arbola adierazten du; haren fruituetatik jan zuten Adam eta Evak eta hortik dator jatorrizko bekatua; beraz, Jesu Kristo gogorarazten digu, bakeak egiteko eta berrerosteko. Baina baita bizitzako zuhaitza edo betiko bizitza ere, hosto iraunkorreak delako. Hiruki formako zuhaitza, gehienetan koniferoa delako, Hirutasun Santuaren ezaugarritzat ere hartzen da.

### **Jaiotzaren jatorria**

Jaiotza edo Belengo estalpea Gabonetako kristau-sinbolorik ezagunenetakoa dugu. Kristoren jaiotza irudikatzea duela 8 mendetik hona datorren Elizaren tradizio baten parte dela diote adituek.

Dirudienez, jaiotzen jatorria Erdi Aroan kokatzen da. San Frantzisko Asiskoa dela uste da ohitura honi edo Jainkoaren Semearen gizon egitearen irudikatze honi hasiera eman ziona, 1200etik 1226ra bitartean. 1223eko Jesusen jaiotza egunean, Greccio herrixkan zela, jainkozko indar batek eragin omen

zion Jesusen jaiotza bizi-bizian berregitera, horretarako baime-na eskatuz Honorio III.a Aita Santuari.

Gertakari hau san Buenaventurak eta Tomás Zelanok kon-tatzen digute, hark *Legenda Luzea* (Legenda Maior) deritzan dokumentuan eta honek *Leben bizitza* deritzan lan biogra-fikoan. Hona bi lekukotasunak *Asisko Frantzisko Asisko Klara* izeneko euskal liburutik hartuta:

“Hil baino hiru urte lehenago, Greccio herrixka ondoan, Je-sus haurraren jaiotza ahal zuen osperik handienaz ospatzea erabaki zuen, jendearen debozioa biziberritzeko. Baina ospaketa hura berrikeriatzat hartua izan ez zedin, lehenik Aita Santuaren baimena eskatu eta lortu zuen.

Ganbela bat prestatu zuen belar eta guzti eta idia eta as-toa ekarrarazi zituen. Anaiak bildu ziren, jendea etorri, basoa ahotsez bete, eta gau beneragarri hura distiraz eta ospez jantzi zen, mila zuziren argitan eta gorespen-kantu gardenen soinu-tan.

Jainkoaren zerbitzaria ganbela aurrean zegoen debozioz beterik, begiak malkotan eta bihotza pozez lehertu beharrean. Ganbela gainean eman zen meza nagusia, eta bertan Frantzis-kok, Kristoren diakonoak, Ebanjelio santua kantatu zuen. Ge-ro, herriari predikua egin zion, Errege pobrearen jaiotzari buruz mintzatuz: hura izendatzean, ‘Bethlemgo Haurra’ esaten zion maitasun samurrez.

Hau guztia zaldun bertutetsu eta egiazale batek ikusi zuen, Greccioko Joan jaunak, Kristoren maitasunez munduko armak utzi eta Jainkoaren zerbitzariarekin familiartasun handiz elkar-tua egon zenak. Zaldun honek baietsi zuen haur oso eder bat ikusi zuela ganbelan lotan, aita Frantzisko dohatsuak, bere bi besoen artean estutuz, lotatik iratzartzen zuela zirudiena.

Zaldun debotoaren ikuskaria sinesgarria da, ez bakarrik le-kukoaren santutasunagatik, baita gero gertatu ziren mirariek

egiazatu eta baieztatu zutelako ere. Izan ere, Frantziskoren etsenpluak, munduaren begi aurrean jarriak, Kristoren fedean motelduak zeuden bihotzak biziberritu baitzituen, eta ganbelako belarra, herriak gordea, gaixo zeuden abereentzat sendagai miragarri eta beste hainbat izurrite aldentzeko eragingarri gertatu baitzen. Horrela, Jaunak aintzaz betetzen zuen bere zerbitzaria eta mirari nabarmen eta harrigarri erakusten zuen haren otoitz santuen eraginkortasuna” (Legenda Luzea, 10. kapituluko 7. zenbakian).

Tomas Zelanoren *Leben bizitzan* zertzelada gehiago agertzen dira; honela kontatzen du:

“Gogoangarria eta begirunez oroitzekoa da, hil baino hiru urte lehenago, Jesu Kristo gure Jaunaren Jaiotza egunean Greccio izeneko herrixkan egin zuena. Bazen lurralde hartan Joan izeneko gizon bat, izen ona eta biziera hobea zuena. Frantzisko dohatsuak biziki maite zuen, zeren eta, noblea eta bere herrialdean txit agurgarria izanik, odoleko nobletasuna arbuaiatuz espiritukoa aukeratu baitzuen. Deiarazi zuen, bada, Frantzisko dohatsuak, beste hainbatetan bezala, Jesusen jaiotza baino hamabost bat egun lehenago, eta esan zion: ‘Aurtengo Jaunaren festa Greccion elkarrekin ospatzea nahi baduzu, zoaz hara bizkor eta prestatu arretaz esango dizkizudanak. Belenen jaio zen haurraren oroigarria egin nahi dut, eta neure begiz nolabait ikusi haurrak jasan zituen gabezien ondoezak, nola izan zen askan etzana eta idiaren eta astoaren artean lasto gainean jarria’. Gizon on eta leialak, hau entzun bezain agudo, lasterka joan eta santuak esandako guztia prestatu zuen.

Hurbildu zen egun alaia, bozkariatzeko garaia heldu zen. Hainbat lekutako anaiei egin zitzaien dei, eta lurralde hartako gizon-emakumeek, bihotza pozturik, ahal zuten moduan, kan-delak eta zuziak prestatu zituzten gau hura, bere izar distiratsuz egun eta urte guztiak argitu zituen gaua, argitzeko. Heldu

zen, azkenik, Jainkoaren santua eta, dena prestatua aurkiturik, ikusi eta poztu egin zen. Aska moldatzen dute, belar ondua ekartzen eta astoa eta idia sarrarazten. Han sinpletasuna ohoratzen da, pobretasuna goraiatzeko, apaltasuna gomendatzen, eta Greccio Belen berri bilakatzen da. *Gauak egunak bezala egiten du argi* eta gozo bihurtzen da gizaki eta abereentzat. Iristen da herria eta misterio berriaren aurrean poz berriz alaitzen da. Basoa soinu betetzen da eta harkaitzek oihartzun egiten diete poz-kantuei. Anaiek Jaunaren gorespenak kantatzen dituzte eta gau osoa bozkarioz janzen da. Jainkoaren santua aska aurrean dago zutik, intzirika, gupidaz eta poz harri-garritz gainezka. Aska gainean ospatzen da meza nagusia, eta apaiza kontsolazio paregabez gozatzen da.

Jainkoaren santuak diakono-jantzia jartzen du, diakono baitzen, eta Ebanjelio santua kantatzen du ahots ozenez. Haren ahots benetan indartsu, gozo, argi eta ozenak zeruko sarietara gonbidatzen ditu denak. Ondoren, predikua egiten dio herriari, eta Errege pobrearen jaiotzaz eta Belen herri txiki-az ezitia darien hitzez mintzatzen da. Behin eta berriz, Kristo 'Jesus' aipatzean, maite sugarretan urtua, 'Bethlemgo haurra' esaten dio; eta 'Bethlehem' ardi-antzera beeka esatean, ahoa bete-bete egiten zaio doinuz, baina are gehiago maitasun samurrez. 'Bethlehemgo haurra' edo 'Jesus' aipatzean, ezpainak mihiaz miazkatzen ditu, izen horien gozoa dastatuz eta ahogozatuz.

Oparo gertatzen dira han Ahalguztidunaren dohainak, eta bertute handiko gizon batek ikuskari harrigarria izan zuen. Haurtxo bat ikusi zuen sehaskan hilik, eta santuak, harengana hurbilduz, lozorro batetik bezala iratzarri zuen. Eta egia esan, ikuskaria ez zen desegokia; izan ere, Jesus haurra askoren bihotzetan ahaztua zegoen; baina, bere onginahiaren egitez eta bere zerbitzari Frantzisko santuaren bidez, berpiztu egin da bihotzetan eta jendearen oroimenean maitekiro txertatu.

Gaubeila ospetsua amaiturik, pozik itzuli zen bakoitza bere etxera.

Askari jarritako belar ondua gorde egin zen, haren bidez Jaunak, bere erruki santua oparo isuriz, zamariei eta gainerako animaliei osasuna bihur ziezaien. Eta hala gertatu zen: inguruko lurraldean gaitz ezberdinek jotako animalia asko beren gaitzetatik libratu zen, belar hartatik janez. Are gehiago: erditze luze eta mingarriak zituzten emakumeak ere, belar hura sabel gainean ipiniz, onik erditu ziren. Era berean, era askotako ezbeharrak zituen beste andre-gizon multzo handi batek irrikatzen zuen ongizatea lortu zuen.

Askaren tokia Jaunari sagaratu zitzaion kultu-leku bezala: Frantzisko aita txit dohatsuaren ohoretan aldarea eraiki zen askaren gainean eta eliza sagaratu zen. Horrela, inoiz animaliek belarra jan zuten tokian, gizakiek *Bildots garbi eta akasgabearen* haragia, esanezineko maitasunez *bere burua guregatik eman zuen* Jesu Kristo gure Jaunaren haragia, jango zuten beren gorputz-arimen osasunerako. Aintza berari, Aitarekin eta Espiritu Santuarekin Jainko eta errege betiko aintzatsu bizi baita menderen mendetan. Amen. Aleluia. Aleluia”.

Jaiotza irudikatzeko ideiak indarra hartu zuen eta laster batean zabaldu zen kristau-mundu osoan. Baina bizian irudikatetik buztinez eta beste material batzuez eginiko irudietara jo zen.

Deboziozko ohitura hau frantziskotarren Ordenako komentuguztietara zabaldu zen eta Ordena honetakoak izango ziren mundu guztira eramanez.

Beste batzuen arabera, lehenengo jaiotza Napolin, Italian, egin zen buztinezko irudiez.

Azkenik beste batzuek katedraletako fatxadetan oparo egon ohi diren eskulturetan aurkitzen dute jaiotzaren jatorria;



eskola gutxiko fededunei, irudi bidez, erlijioko misteriorik nagusienak irakasteko bidea zen hori. Beste batzuek atzerago jotzen dute jaiotzaren jatorriaren bila eta Kristo ondorengo II. mendean ikusten dute haren aurrekaria izan daitekeena Erromako Priszilaren katakonbetan, Andre Maria Jesus Haurra besoetan duela agertzen baita. Baina ezagutzen den Jesusen jaiotzaren irudikatzerik zaharrena, Kristo ondorengo III. mendekoa, Alemaniako Füssen monasterioan omen dago. Espainian, berriz, lehenengokoa Bartzelonako katedralean agertzen da, IV. mendearen hasieran.

XVIII. mendean gero, Murtziako Salzillo, Kataluniako Vallmitjana eta Amedeu eta Valentziako Jose Estebe Bonet eta Jose Ginés eskultoreek gero beste irudikapen batzuetan erabiltzeko diren eskulturak egin zituzten.

### **Azken gogoeta**

Gabonetako hiru tradizio hauek oraindik bizirik daude gure gizartean, baina aldaketa nabarmenak izan dituztela sumatzen dugu. Garai bakoitzak bere izaera txertatzen diela dirudi, bere desiren eta gogo sakonen zama husten duela haiengan. Gure parean pasatzean merkatu, kontsumo eta apainduria airez bete ditugu. Aire edo mozorroa soilik balitz, gaitz erdi; baina gizarteak deskristautu ahala, tradizio hauek ere beren espiritu jatorrez hustu eta arbasoek helarazi digutenez gabetu egiten ditugu. Eta hau ez da izaten, gehienetan, berezko korrontea, nahita bideratua eta gaurko komunikabide eta teknologia indartsuen laguntzaz manipulatuak baizik.

“Bota nazazue leize-zulo horretara eta egizue berdin zuek ere. Azkenak itxi dezala harpea haitz batekin eta joan dadila menditik behera Kixmiren jaiotzaren berri ematera” esan omen zuen jentilen buru zen agureak. Baina agindu hori mendeetan bete duen OLENTZERO egokitu egin da oraingo forma, nahi eta bizimodura, aire modernoagoz bada ere, lehengo

jentil-arima berreskuratu duela esan dezakegu. ZUHAITZA ez da izango VIII. mendean san Bonifaziok bota zuen haritza, baina gehienetan, aipaturiko esanahi haietaz gabeturik, apainduria eta argizko artifizio hutsez jantzirik agertu ohi zaigu. JAIOTZA geratzen zaigu oraindik kristau-tradizio jator antzera. Asisko haren hasierako espiritua gorde dezala!

*Luis Baraiazarra Txertudi*